



**Maita
dezagun
laguntasuna!**

0. AZALA

Iritsi zaigu 67. zenbakia. Oraingo honetan, laguntasunaren inguruan arituko zaigu aldizkaria. Ea, bada, has gaitzen aldizkaria lantzen!

Zer deritzozue azala azkenerako uzten badugu? Hau da, aldizkaria irakurri ondoren, haurrari honako proposamen hau egingo diozu:

- Galdetu haurrari: Zein izenburu jarriko zenioke aldizkariari?
- Marraztu ezazue orri zuri batean aldizkariari jarriko zenioketen marrazkia, irudia...
- Amaitzeko, izenburu bat jarri eta begiratu aldizkariko azalari!

OSO EZBERDINA ATERA ZAIZUE?

2. AURKIBIDEA

Ea zer egin dezakegun aldizkariko aurkibidera iristen garenean!

Ez ahaztu garrantzitsua dela atal honetan geldialdi bat egitea; izan ere, bertan hainbat pista aurkituko dituzue aldizkariaren nondik norakoa antzeman eta ulertzeko:

- Irakur ezazue lasai-lasai laburpena, banaka, ozen... nahi duzuen bezala.
- Laburpena irakurri ondoren, galdera hau konparti dezakezue: “Zer da zuentzat laguntasuna?”.
- Aldizkariarekin jarraitzeko, aurkibidean dugun zerrendara joko dugu, eta bertan honako hau egin dezakegu:
 - Agertzen diren zenbakiak banan-banan orri batean idatzi, eta zatitxo txikietan moztu eta tolestu.
 - Tolestutako zati horiek nahastu egingo ditugu, eta, aldizkariko beste atal bat irakurri behar duzuen bakoitzean, zoriz orritxo zati bat aterako duzue.



**Maita
dezagun
laguntasuna!**

3. LAGUN

Joastu gaitzen apur bat letrekin:

- Galde iezaiozu haurrari ea jolasteko prest dagoen. Modu horretan, haurraren irrika piztuko dugu.
- Jolasa letrak aldatzean datza, hau da, irakurtzen ari zareten bitartean zenbait letra beste letra batekin aldatu beharko dituzue, eta entzuten ari denak aldaketa horrekin jabetu beharko du.
- Beraz, irakurketa konpartitu bat beharko duzue.
- Amaitzeko, galderatxo bat landu dezakezue istorioa hobeto ulertzeko.

4. PUPU ETA LORE

Irakurtzen ari garena gure ingurukoekin konpartitzea jarduera bikaina eta aberatsa da, elkar gehiago ezagutzeko balio diguna. Pupu eta Loreren atalera iristean:

- Orriaren kopia bat aterako duzue.
- Ondoren, atal edo laukitxoak moztuko ditugu.
- Jarraian, haurrari honako hau esango diozu: “Begira Pupu eta Loreren komikia nola agertu den?” (moztutako zatiak erakutsi haurrari). “Lagunduko didazu ondo jartzen?”.
- Ondoren, komikia ordenatuko duzue.
- Amaitzeko, irakurri komikia; irakurri bitartean, egin geldialdi batzuk, eta egin galdera batzuk haurrari, adibidez: “Zuk zer egingo zenuke?”.



Maita
dezagun
laguntasuna!

5. TIRITATXO

Tiritatxoren aholkuak irakurri aurretik irudian erreparatzeko proposamena egiten dizuegu:

- Irudia aurrean duzuelarik eta ondoan orritxo bat hartuta, arnas aparatuaren inguruko “sekretutxoak” sortuz joango zarete; ziur gaude antzeko sekretuak izango direla. Hau da, arnas aparatua zer den eta zertarako balio duen zerrendatzen saiatu behar duzue.
- Amaitzean, Tiritatxoren aholkuak irakur itzazue lasai-lasai eta zuek sortutakoekin alderatuz.

6. BARATZE NATURALA. KARAKOLA ETA BAREA

Hau da hau informazio festa! Jarraian, orri zuritxo bat hartuko dugu baratze naturalean agertzen zaiguna txukun-txukun idatzita jarri ahal izateko:

- Lehenik eta behin, utzi haurrari nahi duen bezala irakurtzen.
- Ondoren, orri zurian izenburua idatzi eta koloreztatu egingo dugu.
- Jarraian, zikloak idatziko ditugu banan-banan.
- Amaitzeko, gure inguruko norbaiti azalduko diogu orrian idatzi duguna.

7. HAUR KANTAK

Jarrai dezagun irakurketarekin gozatzen!

- Lehenik eta behin, hasi irakurtzen olerkitxoak.
- Galdetu haurrari ulertzen ari den edo ez; izan ere, zenbait bertso ulertzeko zailak suerta dakizkioke.



**Maita
dezagun
laguntasuna!**

- Jarraian, utzi denbora haurrari bere kabuz kankak berriro gainbegiratzeko.
- Amaitzeko, zuek jarri doinua bertso bakoitzari!

8. PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Irakur ezazue komikia lasai-lasai, eta, jarraian, asmakizunekin jolastuko gara. Komikian ageri diren hitz edo irudietan oinarriturik, asma itzazue asmakizun batzuk. Hemen adibide bat:

- Kolore biziko eta forma borobileko gauza baten bila gabiltza; ia komikiko zati guztietan agertzen da.
- ...

Jolas honek, modu dibertigarrian, komikiaren errepaso bat egiten lagunduko du; beraz, animatu!

9. EUSKAL HERRIKO ANIMALIA: SUGEGORRIA

Oraingo honetan, Euskal Herriko Animalien Atalean, sugegorria ageri zaigu. Galde iezaiozu haurrari elkarrekin irakurtzea nahi duen. Ezezkoa bada, utzi lasai irakurtzen, eta, baiezkoa bada, lagundu iezaiozu irakurketan ageriko diren komak, puntuak, galdera zein harridura markak irakurtzen. Amaitzean, galde iezaiozu jolas bat egiten lagunduko dizun:

- Hartu orri zuri bat, eta marraztu laukitxoaren errenkada batez karakol bat.
- Lauki bakoitza kolore ezberdinez margotu.
- Jarraian, nahi duzuen laukitxoetan, besteengandik bereizteko zerbait egin (irudi bat, marra bat..).
- Ondoren, galderak sortu, aparteko txarteltxoetan idatziz; nola ez, balearen inguruan jaso duzuen informazioaz baliatuz.
- Bereizitako laukitxoetan erortzean, sortu dituzuen galdera hauek erantzun beharko dituzue amaieraraino iristeko.



**Maita
dezagun
laguntasuna!**

- Amaierara lehenengo iristen denak beste guztien besarkada jasoko du.
- Jolasa prest dagonean, gonbidatu zuen lagun, familiarteko... eta ekin jolasari!

10. FILOSOFO TXIKIAK

Atal honetan, esan haurrari gaineratik begiratuko duzuela testua, baina ez duzuela irakurriko; izan ere, zer esaten ari diren asmatu beharko duzue! Istoriora gerturatzeko, urdinez dagoen izenburua irakurriko diozula esan. Asmatuikoak eta beraiek diotenak izango al dute zerikusirik? Aurrera, ba!

- Istorioa asmatu ondoren, esan zeuk irakurriko diozula ipuintxo!
- Bukaeran egin honako galdera hauek:
 - Sentitu al duzu noizbait Xerrik Perurekin sentitu duena?
 - Zer egin dio Xerrik Peruri?
 - Peru haserretu egin da? Zu haserretuko zinateke?
 - Betirako lagunak izatea posible da?

11. BIZIPOZAREN JAIA

Bizipozaren eguneko ekintza ugari zaizkigu bertan!

Gure proposamena testua bion artean irakurtzea litzateke: lehenik eta behin, zuk bat, ondoren haurrak bestea, eta abar.

Amaitzean, gehien gustatu zaizuen ekintza adierazi beharko duzue biok!

Ondoren, eskuinaldean dauden irudiak haurrari azaldu, bakoitza zer den...

Ekintzari bukaeratzat emateko, Bizipozaren Facebookeko atalean sartu, eta arakatu: argazkiak, bideoak. Sartu eta gozatu!



**Maita
dezagun
laguntasuna!**

12. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Atal honetan, lehenik eta behin bion artean irakurri olerkia. Ziurtatu haurrak olerkiak ondo ulertu dituela, eta, behin ulermena ziurtaturik, errezitaldia prestatu beharko duzue!

Aukeratu publikoa (familia, lagunak...), eta prestatu ikuskizun dotore bat. Nahi izanez gero, mozorrotu ere egin zaitezke!

13. MARIKALANBRE

Marikalanbreren istorioa irakurtzeko, animatu berari irakurtzera!

Zera egitea proposatzen dizuegu:

Irakur dezala testua, eta, zalantzak baditu, argitu ieazakiozu.

Ondoren, Marikalanbrek eta Fatimak egin duten esperimientua egiten saiatu etxean. Baina, kontuan izan, esperimientua egiteko, egin dutena ondo ulertu beharko duzuela lehenik eta behin...

Ondoren, batu beharrezko material guztia, eta ekin jolasari!

14. LARGABISTA

Haurra largabistaren istoriora gerturatzeko, zera proposatzen dizut:

Esan haurrari testua bi aldiz irakurriko diozula. Lehenengoan, testua ondo irakurri beharko diozu, baina, bigarrenetan, akatsak egingo dituzu: hitzak asmatu, esaldiak alderantziz esan... Berak asmatu egin beharko du zer ari zaren gaizki irakurtzen!



Maita
dezagun
laguntasuna!

16. MUNDUAK GUZTIONTZAK BEHARKO LUKE

Oraingoan, Txernobyldik etorritako neskato bat izango dute gure lagunek euren artean.

Testura gerturatzeko, testua nahieran irakurtzea gomendatzen dizuegu. Seguru Txernobyl hitza agertzean haurrak zalantzak izango dituela. Beraz, gure proposamena gertatutakoaren inguruan zuk berari hitz egitea litzateke, baita Interneten bideo eta argazkiak ikusi eta entzutea ere...

Amaitzean, horrelakorik berriz gerta ez dadin, zuen zerrenda proposamena eratuko duzue bururatzen zaizkizuen ideiekin!

15.

Azken testutxoa irakurtzera animatzeko, zuk zeuk irakurri haurrari testua, tonu eta melodia erakargarri batekin. Ea irakurtzera animatzen den.

Bertan, informazio gehiago eskainiko dizuen link bat ere ageri zaizue; beraz, sartu, eta informatu ematen duten eskaintzari buruz!

Interesgarri eta polita seguru asko!